



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko urriaren 14a

101. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean gertaturiko uholde, haizete indartsu eta abarren ondoriozko hondamendiek kalteturiko pertsoneri laguntza eta babesa emateari buruzkoa. Toki Administrazioako Batzordeak onetsitako irizpena (2. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategineko 56. artikulua aldatzen duena. Osoko Bilkurak aintzat hartua (4. or.).
- Foru Lege proposamena, nekazaritzako ustiategiei lotutako artisau-ekoizpena arautzen duena. Osoko Bilkurak aintzat hartua (5. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da DYArekin sinatuta dituen hitzarmenak berri-
kus ditzan, erakunde honen finantziario egokia lortze aldera. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzorde-
ak onetsia (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Afganistanen hedaturik duen kontingente
militarra erretira dezan. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak bazter utzia (6. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, AP-15 autobiareneko 111. eta 114. kilometro-puntuetan egiten ari diren lanei buruzkoa. Foru Diputa-
zioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, abuztuaren 29an Baztan ibaira isuritako gasolioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean gertaturiko uholde, haizete indartsu eta abarren ondoriozko hondamendiek kalteturiko pertsonen laguntza eta babesa emateari buruzkoa.

TOKI ADMINISTRAZIOKO BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Toki Administrazioako Batzordeak Nafarroako Foru Komunitatean gertaturiko uholde, haizete indartsu eta abarren ondoriozko hondamendiek kalteturiko pertsonen laguntza eta babesa emateari buruzko Foru Lege proposamenari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut, Legebiltzarreko Erregelamenduko 137.3 artikuluan ezarritakoa betez. Proiektu hori 2009ko maiatzaren 6ko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko urriaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

IRIZPENA

Toki Administrazioako Batzordeak 2009ko urriaren 7an eta 9an egindako bileran onetsia.

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean gertaturiko uholdeen, haizete indartsuen eta beste fenomeno natural batzuen ondoriozko hondamendiek kalteturiko pertsonen laguntza eta babesa emateari buruzkoa

ZIOEN AZALPENA

Azken urteotan ikusi ahal izan dugu nola, sarritan, gure foru erkidegoan, eguraldi txarra dela-eta, uholdeen, haizete indartsuen eta beste fenomeno natural batzuen ondoriozko hondamendiak gertatu izan diren. Halako hondamendiek askotariko kalteak eragin izan dituzte jabetza partikular nahiz publikoetan, eta horren ondorioz, beharrezkoa izan da Administrazioak esku hartzea eta zenbait

laguntza ezartzea, bat-batean sortutako egoera horien eraginak arintze aldera.

Beraz, ohikoa da administrazio publikoek, dituzten eskumenen arabera, erantzunak eta laguntzak ematea, eragindako kalteak konpontzeko, neurri batean behintzat. Kontuan hartuta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean ezarritakoa legezko erreserbari eta toki entitateei konpentsatzeko formulari buruz, egokitzen jotzen da zehaztea, foru lege baten bidez, formula homogeen bat, zehaztuko duena nola lagundu behar zaien aipatu udalerriek kalteak eragiten dituen hondamendi bat gertatuz gero, bai salbuespen fiskalen bidez, bai horretarako eta gertatzen diren kasu guztietarako baliagarritzat jotzen diren bestelako formulen bidez.

Horrenbestez, foru lege honek denboran irauteko eta indarraldi mugagabea izateko borondatea du, baina, halaber, atzeraeraginez, kontuan hartu nahi ditu 2009ko otsailean izandako uholdeek eta ekainaren 30eko txingor ekaitzak –nagusiki Valdegako dermioetan eta Metautengo bailaran, eta Allingo eta Ameskoako eskualdeetan– kaltetutako udalerriak.

Horren ondorioz, foru lege honek zehaztu nahi du halako gertaerak izaten direnean eman beharreko laguntzen esparru orokorra, ondoren, gerta daitekeen kasu bakoitzerako xedatzen den foru aginduaren bidez garatua izan dadin, hala, laguntzak ahalik eta arinen izapidetze aldera.

1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen xedea da laguntza- eta onura-neurriak ezartzea 2009ko otsaileko uholdeek eta ekainaren 30eko txingor ekaitzak –nagusiki Valdegako dermioetan eta Metautengo bailaran, eta Allingo eta Ameskoako eskualdeetan–, bai eta hurrengo urteetan Nafarroako Foru Komunitatean antzeko uholdeen, haizete indartsuen eta beste

fenomeno natural batzuen ondoriozko hondamendiek kaltetuta izan litezkeen pertsona fisiko nahiz juridikoentzat.

2. artikulua. Laguntzen onuradunak.

Une bakoitzeko Nafarroako gobernuaren departamentu eskudunak emandako kasuan kasuko foru aginduaren bidez, kaltetutako udalerrien eta biztanleen zerrenda eginen da, bai eta horiek jaso ahalko dituzten laguntzen ere. Foru agindua egiten den lehendabiziko Gobernu Kontseiluan berretsiko da.

3. artikulua. Epeak.

Aurreko artikuluan aipatu den foru agindua emanen da hondamendia gertatu eta hilabeteko epean, eta bertan jasoko dira, halaber, foru lege honetan aurreikusitako laguntzen eta/edo kalteordainen eskaerak aurkezteko epeak, betekizunak eta baldintzak. Foru lege honetatik at geratuko da 2009ko otsailean izandako uholdeei eta ekainaren 30eko txingor ekaitzari –nagusiki Valdegako dermioetan eta Metautengo bailaran, eta Allingo eta Ameskoako eskualdeetan– aurre egiteko arautzen diren laguntzei, baldintzei eta betekizunei dagokienez foru agindua, zeina eman beharko baita foru lege hau onetsi eta hilabeteko epean.

4. artikulua. Laguntzen izaera.

Hondamendiak kaltetutako higiezinaren titularrak, bigarren artikuluan aipatu udalerritakoak izanez gero, salbuetsirik egonen dira hondamendia gertatu den urteko lurraldearen gaineko kontribuziotik. Salbuespen gisa, kontuan hartuko dira 2009ko otsaileko uholdeen ondorioz eta ekainaren 30eko txingor ekaitzaren ondorioz –ekaitz horren eragin nagusia Valdegako dermioetan eta Metautengo bailaran izan zen, bai eta Allingo eta Ameskoako eskualdeetan ere– kalteak jasan zituzten udalerritakoak.

Idatz-zati berria. Subjektu pasiboek pagatutako zenbatekoak itzultzea eskatzen ahalko dute, baldin eta aurreko idatz-zatiko salbuespenerako eskubidea badute eta hondamendia gertatutako ekitaldiko ordainagiriren bat ordainduta badute.

5. artikulua. Beste laguntza osagarri batzuk.

Hondamendien ondorioz kaltetutako jarduerak, halaber, jarduera ekonomikoen gaineko zerga ordaintzetik salbuetsiko dira eta, era berean, erakuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaintzetik salbuetsi ahalko dira, bigarren artikuluan aipatu foru aginduan ezarritako baldintzen arabera; baldintza horietan sartu ahalko da kaltetutakoa birjartzea edo berreraikitzea.

6. artikulua. Udalen konpentsazioa.

Foru lege honetan xedatutakoa aplikatzearen ondorioz udaletan gertatzen den dirusarreraren murriztea konpentsatzen ahalko da azaroaren 9ko 325/1998 eta uztailearen 15eko 220/2003 foru dekretuetan araututako prozedurei jarraikiz, eta Nafarroako aurrekontu orokorretan horretarako dagoen kontusailaren kargura ordainduko da.

7. artikulua. Ekipamendu eta azpiegitura publikoetan eginiko kalteen konpentsazioa.

Ekipamendu eta azpiegitura publikoetan kalteak izanez gero, kaltetutako toki entitateek lehentasuna izanen dute dagozkien laguntzak jasotzerakoan, kaltetutako elementuak berreraiki edo konpontzeko, lehen zituzten ezaugarrien arabera, eta beharrezkoak diren hobekuntzak egiteko arrazoi berak direla-eta berriz kaltetuak ez izateko. Lehentasun hori departamentu eskudunak emandako foru agindu bidez ezarriko da.

8. artikulua. Aurrekontu-beharrizanak.

Ekitaldi honetako aurrekontu-beharrizanak estaltzeko, bai eta hurrengo ekitaldietarako, beharrezkoa balitz, Nafarroako Gobernuak behar diren kreditu bereziak eta/edo osagarriak izapidetuko ditu, foru legeetan ezarritakoari jarraikiz.

Artikulu berria. Kreditu eragiketak

Hondamendi egoerek eragindako kalteak direla-eta azpiegiturak eta ekipamenduak konpondu edo berriro jartzeko obren finantzaziorako kreditu eragiketetarako, foru lege honek ukitutakoek ez dute beharko Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 130. artikuluan aipatzen den baimena.

Artikulu berria. Presako egoera oso larriak

Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 73.1.c) artikuluan agindutako ondorioetarako, presako egoera oso larritzat hartuko da eta alde zuzeneko publikizaterik gabeko prozedura negoziatua erabiltzen ahalko da, kaltetutako toki entitateen eta ureztatzaileen erkidegoen azpiegitura eta ekipamenduak konpondu edo berriro jartzeko obren, horniduren eta laguntzen kontratazioa egiteko.

Lehenengo xedapen gehigarria. Laguntzen izaera osagarria eta subsidiarioa.

Foru lege honetan ezarritako laguntzak ondoko osagarriak eta subsidiarioak izanen dira beti, eta hurrenkera honetan: sinatutako aseguru polizen konpentsazioak, bai eta Estatuan edo Europar Batasunean halako egoerentarako izan daitezkeen laguntzak ere.

Horretarako, foru lege hau garatuko duten foru aginduak kontuan hartuko dute osagarritasun eta subsidiarotasun hori, eta, horrenbestez, onuradunek, pertsona fisikoak nahiz juridikoak izan, polizen titularrak diren aseguru-etxeetan izapidetu beharko dituzte konpentsazioak, eta, modurik badago, kasuan kasuko laguntzak eskatu ahalko dituzte Estatuko edo Europar Batasuneko administrazioetan.

Edonola ere, laguntzak emateko formulak ezarri ahalko dira, betiere aurrerakin izaera izanen

dutenak, beste administrazio publiko batzuetan eginiko laguntza eskariak ebatzi bitartean.

Bigarren xedapen gehigarria. Nafarroako Gobernuari baimena ematea.

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio foru lege hau garatu eta betearazteko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategineko 56. artikulua aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Legebiltzarrak, 2009ko urriaren 8an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategineko 56. artikulua aldatzen duen Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkar-

teak aurkeztu zuen eta 2009ko ekainaren 26ko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko urriaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proposamena, nekazaritzako ustiategiei lotutako artisau-ekoizpena arautzen duena.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Legebiltzarrak, 2009ko urriaren 8an egindako Osoko Bilkuran, nekazaritzako ustiategiei lotutako artisau-ekoizpena arautzen duen Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkez-

tu zuen eta 2009ko ekainaren 26ko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko urriaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da DYArekin sinatuta dituen hitzarmenak berrikus ditzan, erakunde honen finantziazio egokia lortze aldera.

LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak, 2009ko urriaren 6an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da DYArekin sinatuta dituen hitzarmenak berrikus ditzan, erakunde honen finantziazio egokia lortze aldera."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko urriaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da DYArekin sinatuta dituen hitzarmenak berrikus ditzan, erakunde honen finantziazio egokia lortze aldera

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gaur egun DYArekin sinatuta dituen hitzarmenak eta etorkizunekoak berrikus ditzan, ahal den heinean ekidite aldera irabazi asmorik gabeko erakunde honek Nafarroako gizartearentzat egiten duen lanaren ondorioz duen defizit ekonomikoa.

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Afganistanen hedaturik duen kontingente militarra erretira dezan.

LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Afganistanen hedaturik duen kontingente militarra erretira dezan?"

Legebiltzarreko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak 2009ko urriaren 6an egindako

Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2009ko irailaren 25eko 94. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko urriaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, AP-15 autobia 111. eta 114. kilometro-puntuetan egiten ari diren lanei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du AP-15 autobia 111. eta 114. kilometro-puntuetan egiten ari diren lanei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko irailaren 14ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko irailaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du AP-15eko zenbait tartetan egiten ari diren lanei buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna.

AP-15eko 111 kilometro-puntuaren inguruan egiten ari diren lanak

1. Autobidea, 111 kilometro-puntuaren inguruan, terreno naturalaren gainetik 15 metro dagoen lubeta baten gainetik doa. Lubeta horretan luizi bat izan zen, autobidetik zoazela ikusten ez dena. Egiten ari diren lanak (autobidetik zoazela ikusten ez direnak, hauek ere) aipatu lubeta berregiteko dira.

Eskuineko erraila moztuta dago autobidearen galtzadako ertz horretan trafiko-zamak saihesteko. Segurtasun arrazoiengatik, horrela mantentzen da lubeta berregiten ari den bitartean. Gaurkoz, aurreikusten da autobideko galtzadan egindako murrizketak guztiz bukatzea iraila bukatu baino lehen.

A-15eko 114. kilometro-puntuaren inguruan egiten ari diren lanak

2. A-15 autobideko (Leitzarango Autobidea) Bi Ahizpeko tarteko harri-lubetan joan den ekainaren

6an izandako harrien erorketa larriaren ondoren –hartan autobidetik zihoazen ibilgailu batzuk inplikaturik izan ziren–, Nafarroako Gobernuak Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko Zainketa Zerbitzuak esparru hartako ikusizko ikuskapen bat egin zuen, eta atzeman zuen lubetako toki askotan arrisku argia dagoela tamaina desberdinetako harriak erortzeko eta haietako batzuk autobideko galtzadaraino ere iristeko.

Horren aurrean, Zainketa Zerbitzuak geoteknia bertikalaren arloko enpresa espezializatu bati txosten bat eskatu zion arriskuaren norainokoa baloratu ahal izateko eta, kasua bazen, behar ziren presako neurriak zehazteko hain zuzen ere lubeta egonkortze aldera eta ahal zen guztian harrien erorketa autobidera iritsi ez zedin saihesteko aldera.

Hori guztia dela eta, harri-lubeta egonkortzeko neurriak aplikatzeko lanak egiten ari dira, hain zuzen ere A-15 autobideko (Leitzarango Autobia) Bi Ahizpeko pasabidearen parean. Lan horiek uztalean hasi ziren eta uste izatekoa da irailaren bukaeran amaituko direla.

Honakoak dira egiten ari diren jarduerak:

- Gutxi gorabehera + 40 metroko kotan, sei metro altu den eta 3.000 eta 5.000 kilojoule bitarteko energia xurgatzeko gai den pantaila dinamiko bat jarri.

- Toki zehatzetan buloiak jarri; hain zuzen ere, daukaten dimentsioarengatik pantaila dinamikoaren xurgatze-ahalmena arriskuan jar dezaketen harri-bolumenen edozein altueratan.

- Buloiak jarri, josi edo kablezko sareekin babestu pantaila dinamikoaren azpitik geratzen diren harri-estratuak.

- Tortsio hirukoitzeko sare bat jarri pantaila dinamikoaren azpiko lubetaren gainerako zatian, zati horri segurtasuna emateko.

• Biaduktuaren egonkortasunean eragina izan dezakeen harri-bolumenaren ainguratze sistemati-koa.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamen-
tuko Erregelamenduaren Testu Bateratuko 192.1

artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko irailaren 15ean

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseila-
ria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, abuztuaren 29an Baztan ibaira isuritako gasolioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du abuztuaren 29an Baztan ibaira isuritako gasolioari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artiku-
lun ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna,
Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamen-
tuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.
Galdera argitaratu zen 2009ko irailaren 14ko 88.
Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parla-
mentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin
du abuztuaren 29an Baztan ibaira isuritako gaso-
lioari buruz (PES-235). Hona Landa Garapene-
ko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Abuztuaren 29an, gutxi gorabehera goizeko
9etan, gasolio isurketa bat izan zen Baztan ibaian,
Elizondoko hirigunearen barruan. Isurketa gertatu
zen kamioi bateko gasolio depositua istripuz hau-
tsi zelako. Likidoa euri-uren sistemaren bitartez iri-
tsi zen ibaira. 400 litro inguru isuri ziren. Landa

Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko
ingurumenzainek ibai-ertzak ikuskatu zituzten
isurketa gertatu zen tokitik hasi eta ibaian behera.
Mugairiko suhiltzaileek, bestalde, ukitutako ere-
mua garbitzeari ekin zioten, eta lan horiek
12:00etan edo bukatu zituzten.

Ez da inongo ebidentziarik topatu ibai-ko fau-
nan edo landaredian eta haren inguruan inongo
erasanik gertatu izanari buruz, segur aski isurketa
txikia izan zelako eta isurketa motagatik beragatik
ere. Gure ustez, istripuak ez du eragin ekologiko
aipagarriarik izan.

Bidasoa barrutiko ingurumenzainek eginiko
aktaren kopia erantsi dugu.

Hori jakinarazten dut, Parlamentuko Erregela-
menduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko irailaren 24an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontsei-
laria: Begoña Sanzberro Iturriria

(Oharra: aipaturiko eranskina foru parlamenta-
rien eskura dago 7-09/PES-00235 espedientean,
ondoko web helbidean hain zuzen:

<http://actividad.parlamento-navarra.es:8080/AgoraWeb/>